

20 — 21

# EUSKADIKO ORKESTRA



# SCHUBERT

URRIAK 1 OCTUBRE

Kontzertu bikoitza / Doble sesión: 18:00h / 20:15h

**PAMPLONA / IRUÑA**

Auditorio BALUARTE Auditoriuma

[euskadikoorkestra.eus](http://euskadikoorkestra.eus)

# EUSKADIKO ORKESTRA

Zuzendari Titularra / Director Titular  
**ROBERT TREVIÑO**

**Musikariak** / Los músicos

## **KONTZERTINOA / CONCERTINO**

Liana Gourdjia

## **I BIOLINAK / VIOLINES I**

Waldemar Machmar (1)  
Irene Echeveste (3)  
José Ignacio Aizpiri  
Inmaculada Aramburo  
Laura Balboa  
Xabier de Felipe  
Marie Gaillard  
Alexandre Kozouline  
Oscar López  
Maite Menéndez  
Larraitx Oizartzabal  
Ortzi Oihartzabal  
Itziar Prieto  
Maialen Rezabal  
Cristina Vértiz

## **II BIOLINAK / VIOLINES II**

Raquel Cortinas (2)  
Xabier Gil (2)  
Mikel Ibañez (3)  
Amaia Aurmendi  
Nathalie Dabadie  
Virgile Demillac  
David Escudero (4)  
Christine Felden  
Ludwik Hamela  
Anne-Marie Harmat  
Antoni Kosc  
Ricardo Ruiz  
Igor Torre

## **BIOLAK / VIOLAS**

Delphine Dupuy (2)  
Pawel Krymer (2)  
Monika Mazur (3)  
Pascal Arnaud  
Natacha Dupuy-Scordamaglia  
Justyna Janiak-Krymer  
Elena Mtz. de Murguia  
Arkaitz Martinez  
Sergio Montero  
Inés Picado  
Yann Seyrac

## **BIOLONTXELOAK / VIOLONCHELOS**

Juan Ignacio Emme (2)  
Gabriel Mesado (2)  
Flore Lefevre (3)  
Natalia Díaz  
Jacek Grabe-Zaremba  
Jon Larraz  
Beatriz Linares  
Pascale Michaud  
Ian Swedlund

## **KONTRABAXUAK / CONTRABAJOS**

Arkadiusz Maciejski (2)  
Paloma Torrado (2)  
Guangyao Zhao (3)  
Victor Bogdanov  
Andras Cserna  
Mehmet Sönmez  
Pierre Torrent

## **FLAUTAK / FLAUTAS**

Hélène Billard-Alirol (2)  
Bruno Claverie (2)  
Ander Erburu  
Oihana Kontxeso

## **OBOEAK / OBOES**

Silvia Escain (2) (4)  
Hervé Michaud (2)  
Rafael Alonso  
Pascal Laffont

## **KLARINETEAK / CLARINETES**

Luis Cámara (2)  
José Miguel Chirivella (2)  
Juan Navarro (2)  
Stéphane Langlois  
Sara Zufaurre

## **FAGOTAK / FAGOTES**

Marco Caratto (2)  
François Proud (2)  
Yuan Dai  
Anne Charlotte Lacroix

## **TRONPAK / TROMPAS**

Jean-Luc Casteret (2)  
Cristian Palau (2)  
Adrián García Carballo  
Marcos Garrido (4)  
Karl Pipkin  
Xabier Sarasa  
Salvador Tudela

## **TRONPETAK / TROMPETAS**

Didier Bousquet (2)  
Miguel Echepare (2)  
Jesús Castillo  
Daniel Sancasto

## **TRONBOIAK / TROMBONES**

Arnaud Mandoche (2)  
Christophe Sánchez (2)  
Javier Almarza  
Hervé Cahen  
Daniel Ruibal (4)

## **TUBA**

Oscar Abella (2)

## **TINBALAK ETA PERKUSIOA / TIMBALES Y PERCUSIÓN**

Anthony Lafargue (2)  
Héctor Marqués (2)  
Igor Arostegi  
Xabier Peña

## **HARPA / ARPA**

Francesca Di Nicola (2) (4)

- (1) Kontzertinoaren laguntzailea /  
Ayuda de concertino
- (2) Bakarlarria / Solista
- (3) Lehen tuttia / Primer tutti
- (4) Aldi baterako kontratazioa /  
Contratación temporal

# 01

URRIA ~ OCTUBRE



**ROBERT TREVIÑO**

Zuzendaria / Director

**EUSKADIKO  
ORKESTRA**



EGITARAUUA ^ PROGRAMA:

Grupo

**1.**

taldea

**18:00**

**F. SCHUBERT** [1797-1828]

**Sinfonía nº1 en Re Mayor, D.82** [29']

- I. Adagio - Allegro vivace
- II. Andante
- III. Allegro
- IV. Allegro vivace

**Sinfonía nº6 en Do Mayor, D.589** [27']

- I. Adagio - Allegro
- II. Andante
- III. Scherzo: Presto - Più lento
- IV. Allegro moderato

Grupo

**2.**

taldea

**20:15**

**F. SCHUBERT** [1797-1828]

**Sinfonía nº3 en Re Mayor, D.200** [26']

- I. Adagio maestoso - Allegro con brio
- II. Allegretto
- III. Menuetto
- IV. Presto vivace

**Sinfonía nº9 en Do Mayor, D.944** [48']

- I. Andante - Allegro; ma non troppo
- II. Andante con moto
- III. Scherzo: Allegro vivace
- IV. Allegro vivace



# SCHUBERT

## Schuberten sinfonia guztiak Denboraldi erromantiko baten hasieran

**S**chubertek ez zuen arrakasta handirik izan bizitzan, baina lagun bikainak izan zituen. Gazte hil zen eta zailtasunez beteriko bizitza izan zuen, beti pobrezia gorritik eta lur jotzetik gertu. Alabaina, espiritu sentikorreko gizona izan zen, eta jakin izan zuen, bere modura, bizitzaren plazerez gozaten. Horrela, miresten zuten lagunene sare bat ehundu zuen. Publikoaren aurrean inoiz ez zuenez arrakasta lortzen, inguruko lagun batzuk jaialdi pribatu edo domestikoak antolatzen hasi ziren 1815etik aurrera. Horietan, Schuberten musika ospatu eta beste arte batzuekin lotzen zuten, batik bat poesiarekin. Horrela, Europako hainbat tokitan oraindik ere badirauren tradizio bati ekin zioten. **Robert Treviñok** eta Euskadiko Orkestrak, Denboraldi berezi honen hasieran, schubertiada bat antolatu nahi izan dute, Euskadin lehen aldiz. Gainera, asmo handikoa izango da saialdia, konpositorearen sinfonia guztiak interpretatuko baitira astebetean.

Schubertek 12 edo 13 urterekin idatzi zituen bere lehen lan katalogatuak, baina 16 urte bete arte itxaron zuen sinfoniaren generoan lehen aldiz saiatzeko. «Saialdi» bat dela esatea apur bat injustua da, 1813ko urrian amaitutako **1. sinfonia** ariketa bat baino askoz gehiago da eta. Vienako Apaizgaitegi Inperialean emandako bost urteko egonaldiaaren amaieran idatzi zuen, ikastegi hartako orkestrarentzat. Antonio Salieri izan zuen maisu bertan. Horrela, sarrerako adagioaren ondotik maisuaren eragina agerian uzten duen allegro bat dator, baina sinfonian beste bi konpositorekiko miresmena ere igartzen da: Mozart, *andante*an bere arrastoak utzi dituen, eta Haydn, hala *minuet* dotorean nola sinfonia ixten duen *allegro vivace* indartsuan. Alabaina, eta antzekotasun horiek gorabehera, Schuberten izaera ere sumatzen hasiko gara gazte garaiko sorkuntza honetan.

**2. sinfonia** 1814 eta 1815 artean idatzi zuen Schubertek si bemol maiorrean. Esan ohi da lehen mugimenduak Beethovenen *Prometeoren* kreaturak lanaren eredu jarraitzen duela, hasierako largoaren ondoren *allegro* mugikor eta dramatiko bat jarrita. Azken horrek badu jolaserako doinua, kasu honetan Schubertek hainbat puntutan sartzen dituen lekualdatutako azentuek berresten dutena. Bigarren mugimenduan presente dago jada lieden konpositorea. *Minueta*, aldiz, lehen sinfoniakoaren oso bestelakoa da, eta Beethovenen *scherzo*en ildokoa da. Amaierako *presto*ak galoparen erritmoa imitatzen du, eta Schuberten lan bereizgarrienetako bat da, dantzagarritasuna eta dramatismoa uztartzen baititu indar handiz.

Lehen bi sinfoniak apaiztegiko ikasle-garaia lotuta badaude ere, **3. sinfonia**, hilabete batzuk geroago idatzia, heldutasunaren lehen fruitua da dagoeneko. Schubertek 18 urte zituen eta denboraldi bat zeraman eskolako irakasle-lanetan, baina ordurako 200 obra baino gehiago konposatu zituen eta haren estiloa azkar ari zen hezuramaitzen. *Hirugarrena*, gainera, sinfonia laburra da, motza aurrekoekin alderatuta, eta badu beste berezitasun bat ere: ez du benetako mugimendu *lento*rik. Lehen mugimenduan berreskuratutako egiten da *allegro* batez jarraitutako sarrera mantso baten eskema, baina aparteko elementu batekin: Schubertek zenbait gai bi ataletan erabiltzen ditu. Horrek konposizioaren kontrastea murrizten du, baina batasuna ematen dio osotasunari. *Allegretto*ak ganbera-musikaren kutsu goxoa du, baina *minueta* ez da dantza zaharkitu bat izango oraingo honetan. Haren erdiko sekzioa balsaren aurrekaria den dantza-aire bat da, *ländler*a, hain zuzen, Schuberten gatz eta piperrez hornitua. *Bigarren sinfonia*n bezalaxe, energia handiz amaituko du Schubertek *Hirugarrena*, oraingo honetan *tarantella* baten erritmo bizian.

Schubertek berak jarri zion izenburua 1816an amaitutako bere **4. sinfonia**ri: «Tragikoa». Konpositorearen lehen obren arteko serioena da, zalantzarik gabe, baina aldaketa horri esker generoko bere lehen maisulana erdietsi zuen. Lehen mugimendua tragikoa da, baina inola ere ez iluna, *allegro vivace* erritmoko melodiek badutelako Rossiniaren musikaren nolabaiteko airea. Izan ere, konpositore hori izugarritzko arrakasta izaten ari zen Vienan garai hartan. Bigarren

mugimendua, itxuraz, soil-soila da, eta lirismo gazi-gozoz betea dago, baina, beharbada, Schuberten sinfonietako lehen atal guztiz Schubertierra da, egilearen estilo guztiz bereziaren zantzu ugari biltzen baititu. *Minuet* sendoak, bestalde, bide egiten dio sinfonia guztian dagoen mugimendu zinez tragiko bakarrari, tentsio dramatikoak gorenera eramaten duen *allegro* izugarriari hain zuzen.

Schubertek 1816an bertan amaitu zuen **5. sinfonia** baina, aurrekoarekin gertatu zen bezalaxe, 1841era arte ez zen jendaurrean estreinatu, hots, musikagilea hil eta urte ugari igaro arte. Garai hartan, Mozartekin obsesionatua zegoen, eta azken horrek presentzia ukaezina du partituran. Edonola ere, *Bosgarrena* egilearen «sinfonia goiztiarren» arteko onena dela esaten da, Schuberten estiloaren ezaugarri garbi ugari jositako baitago, hala nola lehen mugimenduko biolinaren naturaltasuna, *andante con moto*aren ustekabeko plan tonala, berriz ere *scherzo* baten kutsua duen *minueta* edo amaierako *finale* distiratsua non, Schubertek bakarrik egin zezakeen moduan, pentsamendu ilunak antzematen baitira itxura baikor baten atzean. Argi-ilun horiek sokotasun handiz hornitzen dute Mozarti eginiko omenaldi berezi hau.

1818an amaitutako **6. sinfonia**ren lehen mugimendua Schubertek berak idatzitako ohar bat dauka: «Sinfonia handia da maiorean». «Handia» izengoitia *9. sinfonia* bereganatuko zuen azkenean, baina xehetasun horrek agerian uzten du Schubertek sinfonia honi asmo handiz ekin ziola. Konposizio harekin Estilo Handia delakoa jorratu nahi zuen, sinfonia klasikoaren eredua gainditu eta generoa beste gailur poetiko eta dramatiko batzuetara eraman nahi zuen mugimendua, alegia. Azkenean, Schubertek izenburuko «Handia» adjektiboa ezabatu zuen eta asmo apalagoko obra bat sortu zuen. Edonola ere, hedapen zabala du hasierako *allegro*ak, ezin ederragoak dira *andante*aren melodiak, *scherzo*ak Beethovenen estiloa bete-betean lantzen du eta, kontraste argia eginez, *allegro moderato*aren melodietan Rossiniren aire kezkarik gabeta eta orkestrazio bikainak sumatzen da.

Amaitu gabe geratu ziren sinfonien beste hiru saialdi egin ostean (tartean erreperitorio gabe utzitako *7. sinfonia*), konpositorearen ziklo sinfonikoko obra sonatuenera helduko gara. Paradoxikoki, amaitu gabeko lan bat da hori ere. Ezaugarri horrek markatzen du, hain zuzen, «**Bukatu gabea**» deitutako **8. sinfonia**ren atzean dagoen istorio pertsonala. 1822ko iraillean, Graz hiriko Musika Elkarte Estiriarrak ohorezko diploma bat eskaini zion Schuberti eta hark, euforiaz beterik, haien omenez sinfonia bat konposatuko zuela agindu zien. Hilabete geroago, eginak zituen lehen bi mugimendua eta hirugarrenaren aurreneko konpasak, baina lana eten behar izan zuen mandatu batez arduratzeko, eta geroago gaixotu egin zen. Hilabete haietako korrespondentziari esker dakigu konpositoreak depresio-aldi sakon bat izan zuela hartu zuen gaitza sifilisa zela jakin zuenean, eta Maynard Solomonek argudio sendoen bidez adierazi du Schubertek uste zuela *Zortzigarren sinfonia* lantzen ari zenean kutsatu zela. Horren ondorioz, obra horrekiko fobia piztu zitzaion eta ezin izan zuen amaitu. Izatez, eskuizkribuaz ere libratu zen. Amaitu zituen bi mugimenduek, alabaina, Schuberten katalogoaren obra gorenetakoa bat osatzen dute.

Schuberten azken kapitulu sinfonikoa **9. sinfonia da maiorean** da. «Handia» deitzen zaio, do maiorean idatzi zuen beste sinfoniatik bereizteko, *Seigarren sinfoniatik*, hain zuzen. Azken horri, batzuetan, «Do maior txikia» esaten zaio. Ordubeteko iraupena du; bederatzi sinfonien arteko luzeena da eta, ondorioz, «Handia» izenburua ez datorriko gaizki. Schumanek aurkitu zuen partitura Schuberten anaia Ferdinanden etxeko apal batean ahazturik. Haren iritziz, sinfonia honena «iraupen jainkotierra» da. Izan ere, Schubertek bilbe formal ezin konplexuagoa ehuntzeaz gain, baliabide guztiz originalez josi zuen eta talentu izugarria erakutsi zuen gaien erabilera erretorikoan. Horrekin guztiarekin batera, ohiz kanpokoa da zeharo orkestraren erabilera. Bizitza erdia Beethoven miretsiaren urratsen atzetik ibili eta gero, azken sinfonia horrekin Schubertek lortu zuen etorkizunari Beethovenen *Bederatzigarrenak* bezainbesteko indarrarekin begiratzen zion sorkuntza bat osatzea, bere ahots propio eta zoragarriarekin zeina, tamalez, hilabete eskas batzuk geroago itzaliko baitzen.

# SCHUBERT

## Todas las sinfonías de Schubert en el inicio de una Temporada romántica

**S**chubert no tuvo mucho éxito en vida pero sí tuvo amigos excelentes. La suya fue una existencia corta, llena de dificultades, siempre al borde de la pobreza extrema y del colapso anímico, pero fue también un hombre de espíritu sensible que supo disfrutar de los placeres de la vida a su manera y que tejó a su alrededor una red de amigos que lo adoraban. Como nunca llegó a alcanzar la celebridad entre el público, algunos de sus allegados comenzaron a organizar, a partir de 1815, festivales privados, domésticos, en los que celebraban su música y la ponían en relación con otras artes, especialmente la poesía, dando inicio a una larga tradición que sigue vigente aún hoy en varios lugares de Europa. **Robert Treviño** y Euskadiko Orkestra, como apertura de esta Temporada excepcional, han querido organizar por primera vez en Euskadi una schubertiada, y además una especialmente ambiciosa, ya que implica la interpretación de todas sus sinfonías en solo una semana.

Aunque las primeras composiciones catalogadas de Schubert las escribió con tan solo 12 o 13 años, Schubert esperó hasta los 16 para realizar su primer intento con el género de la sinfonía. Denominarla "intento" es bastante injusto, pues la **Sinfonía nº1**, completada en octubre de 1813, es mucho más que un ejercicio. La escribió al final de sus cinco años de estancia en el Seminario Imperial de Viena, para la orquesta de este centro de enseñanza donde tuvo como maestro a Antonio Salieri. Así, a la solemne introducción en *Adagio* le sigue un *Allegro* que recoge claramente la influencia de su maestro, pero la sinfonía respira también amor por dos compositores: Mozart, que sobrevuela el *Andante*, y Haydn, tanto en el elegante *Menuetto* como en el enérgico *Allegro vivace* con que concluye la sinfonía. Sin embargo, y a pesar de estas semejanzas, la personalidad de Schubert comienza ya a aflorar en esta creación temprana.

Se afirma que el primer movimiento de la **Sinfonía nº2** mayor, escrita entre 1814 y 1815, bebe abiertamente del modelo de *Las criaturas de Prometeo* de Beethoven, con su solemne *Largo* inicial seguido de un móvil y dramático *Allegro* no exento de cierto carácter lúdico, acentuado en este caso por los acentos desplazados de lugar que introduce Schubert en algunos puntos. En el segundo movimiento hace ya acto de presencia el compositor de *Lieder*, mientras que el *Menuetto* es muy diferente del de la *Primera sinfonía* y se sitúa más en la línea de los *scherzi* beethovenianos. El *Presto* final, que imita el ritmo de un galope, es ya una página muy característica de Schubert en su intensa mezcla de fluidez dancística y dramatismo.

Si sus dos primeras sinfonías están aún ligadas a sus estudios en el seminario, la **Sinfonía nº3**, escrita apenas unos meses más tarde, es ya un fruto de primera madurez. Schubert tenía 18 años y llevaba una temporada ejerciendo como profesor de escuela, pero a estas alturas había compuesto más de 200 obras y su estilo se iba definiendo rápidamente. La *Tercera* es, además, una sinfonía corta, concisa en comparación con las anteriores, y con la particularidad de que no tiene un verdadero movimiento lento. El primer movimiento recupera el esquema de introducción lenta seguida de un *Allegro*, con la peculiaridad de que Schubert comparte temas entre ambas secciones, lo que reduce el contraste pero da unidad al conjunto. El *Allegretto* es de un delicioso carácter camerístico, mientras que el *Menuetto* ha dejado de ser esa danza anticuada para convertirse, en su sección central, en un *Ländler*, un baile precursor del vals al que Schubert añade sal y pimienta. Como ya ocurriera en la *Segunda*, también la *Tercera sinfonía* finaliza con una gran explosión de energía, esta vez al frenético ritmo de una *tarantella*.

El propio Schubert bautizó su **Sinfonía nº4**, finalizada en 1816, como "Trágica". Es, sin duda, la más seria entre sus sinfonías tempranas, pero este cambio de carácter le ayudó a dar forma a su primera obra maestra en el género. El primer movimiento, aunque trágico, nunca es oscuro, ya que las melodías del *Allegro vivace* tienen un ligero aire rossiniano, un autor que arrasaba en Viena en aquel momento. El segundo movimiento, en su aparente sencillez y agrídulce lirismo, es quizá la primera página cien por cien schubertiana que aparece en una de sus sinfonías, pues quintaesencia muchos de los rasgos de su inconfundible estilo. El contundente *Menuetto*, por su parte, prepara la llegada del movimiento más propiamente "trágico" de toda la sinfonía, un espectacular *Allegro* que eleva la tensión dramática hasta altas cimas.

Schubert completó la **Sinfonía nº5** en el mismo año de 1816, aunque, al igual que la anterior anterior, no se estrenó en una audición pública hasta 1841, mucho después de su muerte. La escribió en una época en que andaba obsesionado con Mozart, cuya presencia es innegable en la partitura. Pero la **Quinta** es considerada la mejor de las seis "sinfonías tempranas" porque está plagada también de rasgos inconfundiblemente schubertianos, como la espontaneidad de las melodías de los violines en el primer movimiento, el inesperado plan tonal del *Andante con moto*, el *Menuetto* que, nuevamente, se asemeja más a un *scherzo*, o el luminoso *Finale* que, a la manera en que solo Schubert sabía hacerlo, deja asomar momentáneos pensamientos oscuros tras su apariencia optimista, claroscuros que aportan gran profundidad a este particular homenaje a Mozart.

El primer movimiento de la **Sinfonía nº6**, finalizada en 1818, contiene una anotación del propio Schubert: "Gran sinfonía en do mayor". El apodo de "La Grande" quedaría finalmente ligado a la *Sinfonía nº9*, pero el detalle indica la ambición de Schubert al abordar esta sinfonía. Con ella quería acogerse al Estilo Grande, un movimiento que buscaba trascender el modelo de la sinfonía clásica y elevar el género a nuevas cotas poéticas y dramáticas. Finalmente, Schubert eliminó el adjetivo "Gran" del título y creó una obra de aspiraciones más modestas pero de amplio vuelo en el *Allegro* inicial, enorme belleza en las melodías del *Andante*, un *Scherzo* radicalmente beethoveniano y, en claro contraste, un *Allegro moderato* cuyas melodías parecen contagiadas del tono despreocupado y las brillantes orquestaciones de Rossini.

Tras otros tres ensayos de sinfonías que no llegó a completar (entre ellas esa *Sinfonía nº7* ausente de repertorio), llegamos a la creación más famosa de su ciclo sinfónico, que paradójicamente es también una obra inconclusa. Y es esa cualidad, precisamente, la que marca la historia personal tras la **Sinfonía nº8, "Inacabada"**. En septiembre de 1822, la Sociedad Musical Estiria de Gratz le concedió a Schubert un Diploma de Honor y este, eufórico, prometió en agradecimiento la partitura de una sinfonía. Un mes después ya había completado los dos primeros movimientos y los primeros compases del tercero, pero tuvo que interrumpirlo para ocuparse de un encargo y poco después cayó enfermo. A través de su correspondencia de aquellos meses, sabemos que el compositor tuvo una grave crisis depresiva cuando supo que el diagnóstico era la sífilis, y Maynard Solomon ha argumentado convincentemente que Schubert creía haberse sido contagiado en la época en la que estaba trabajando en la *Octava sinfonía*. Desarrolló por ello una fobia contra la obra que le impidió terminarla, y hasta se deshizo del manuscrito. Los dos movimientos que llegó a escribir, sin embargo, son una de las cumbres de su catálogo.

El último capítulo sinfónico de Schubert, la **Sinfonía nº9 en do mayor**, recibió el sobrenombre de "La Grande" para distinguirla de la otra sinfonía en do mayor, la *Sexta*, llamada a veces "La pequeña do mayor". Pero su título no encaja mal con la duración de la sinfonía, que con una hora de duración es, con diferencia, la más larga de las nueve. Para Schumann, que fue quién encontró la partitura olvidada en un estante en casa de Ferdinand, el hermano de Schubert, la de esta sinfonía era una "divina largura", ya que Schubert no solo consigue construir un complejísimo entramado formal sino que logra colmarlo de una sucesión inagotable de recursos originalísimos, talento a raudales en el uso retórico de los temas, y todo ello con un uso de la orquesta absolutamente extraordinario. Tras haber seguido durante media vida los pasos de su ídolo Beethoven, con su última sinfonía Schubert dio nacimiento a una creación que interrogaba al futuro con la misma intensidad de la *Novena* de Beethoven, pero con una voz propia e igual de maravillosa que, por desgracia, se apagaría solo unos meses más tarde.

.....  
Mikel Chamizo

HURRENGO  
ABONU  
KONTZERTUA  
PRÓXIMO  
CONCIERTO  
DE ABONO

GRUPO 1. TALDEA  
**03** AZAROA  
NOVIEMBRE  
18:00h

**WAGNER** WAGNER  
MOZART

GRUPO 2. TALDEA  
**03** AZAROA  
NOVIEMBRE  
20:15h



**SARRERAK\***  
ENTRADAS\*

**10€ < 35€**

- euskadikoorkestra.eus
- baluarte.com
- Taquilla **Baluarte** leihatila



\* Beti ere eserleku librerik balego /  
Sujeto a disponibilidad

# EUSKADIKO ORKESTRA

ELKARTZEN GAITUEN ZIRRARA  
LA EMOCION QUE NOS UNE

